

# PERMANENT FOOD



# Objektu Argitaratu Ezezagun limurtzaile batzuez eta errealaren eta birtualaren arteko bestelako soluzio mistoez

Amerikako rock talde gazte baten lehen albumeko kontrazalean, aldizkari esperimental askoren buruan oso egoki egongo litzatekeen esaldi hau ageri da: «Ezinezkoa zela ez genekielako egin dugu». Egiaz, aldizkari baten lehen zenbakiak balentria izugarria izaten segitzen du, balentria ekonomiko eta praktiko galanta, baina irudiaren eta gaur egungo artearen munduan, esperientzia frantses eta europar batzuek trantzea gainditzea lortzen dute, argitalpenaren forman eta interfazeaz ikuspegi kritiko berria aplikatuta.

## 1. *Semaine*, aldizkakotasunaren beste geografia bat.

Gaur egun artearen munduan, bai Frantzian bai Europan, landako ekintzen aniztasun handian datza aldea, nahiz bizirik iraun ahal izateko gero eta zailtasun handiagoak dituzten arte-zentro txikiek, arte ofizialaren boterearen aurrean.

Arleseko Analogue argitaletxea, **Gwenola Menouek** zuzendua, artera iritsi ahal izatea bultzatzen du. Eta liburuak ere argitaratzen ditu, esaterako **Jochen Gerzen** *L'anthologie de l'art* izenekoa; honek, urtebetez, artisten eta arte-kritikarien arteko hainbat elkartruke eragin zituen. Bildumak, era berean, **Raymond Hainsen** *La boîte à fiches* lana du, Errealista Berrien taldeko autorearen haurtzaroko argazki bilduma bat bera, hitz jokoak eta kultur erreferentziak jasotzen dituzten irakurketa ohar eta iruzkinaz.

*Semaine* gaur egungo arteari buruzko astekari bat da, obra eta erakusketen denboratasunean bildua, hauek talde editorialak pentsamenduaren arkeologiatzat definitzen duen ikuspegi historiko batetik aurkezten baititu. Aldizkariaren ataletan asteko libretoen bidez garatutako esplorazioa da. *Semaine* aldizkariak zuzenean elkarriketatzen ditu artistak, erakusketa komisarioak eta autoreak; gero, bildutako informazio guztiarekin, zortzi faszikuluko katalogo bat prestatu, eta bi hilean behin argitaratzen ditu. Formatu horrek hobeto saltzeko aukera ematen dio.

## 2. Bildumagilea eredu

Bilduma-espirtua berezkoa zaie artista batzuei, esaterako **Joachim Schmidi** edo **Claude Closky** frantsesari; honek aldizkari txikiak edo katalogo tematikoak prestatzen ditu, eta horietan artista saiatu egiten da bere ordena aurkitzen, irudi aniztasunaren barnean betiere. Joachimek honakoa diosku bere webean: «Nire liburu sortek normalean argazkilari afizionatuek ekiten dieten gaietara jotzen dute. Web partekatuetan aurkitu ditudan argazkiak aukeratzin eta antolatzen joan naiz, Flickrrekoak esaterako, etengabeko bilakaeran den argazki digitalen entziklopedia bat sortzeko. Liburu bakoitzak gertakari jakin edo ideia fotografiko batekin lotutako irudiak dauzka; horiek bildurik, bertako argazkiaren lengoaia modernoa eskaintzea da helburua».

**Georges Perecek** beste literatur eredu bat eskaintzen du bere *Penser/Classer* liburuan; hau, oraindik ere, esperimentazio-gai eta erreferentzia da artista berri askorentzat.

Dagoeneko hainbat urtetatik badakigu, zinearen hastapenetik alegia, irudiak elkartuz gero zentzu berria eman diezaiekegula, sekuentzia logikoaren eta filmen muntaketaren printzipioarekin bat.

### 2.a. Bilduma antolatua

Arte ofizialaren munduan serio hartua izateko, arte-zentro, kunsthaus eta museoen pare alegia, gutxienez ehun orriko liburuak eta katalogoak produzitu beharra dago. Printzipio horretan oinarriturik, M19 (maiatzaren 19aren aipamena egiten du izenak) argitaletxeak *Grammes d'Art* izeneko urtekaria ateratzen du, eta honetan nazioarte mailako hainbat artistaren obrak biltzen ditu.

Editorial honek aldizkariak eta liburuak erredaktatzen eta argitaratzen ditu, eta obra ezezagunei espazio jakin bat eskaintzen die. Zenbaki bakoitzak bere pisu zehatza darama izenburutzat, esaterako *1865 grammes d'art* izena du bigarren zenbakiak. Bilduma hau

zorrotz kudeatzen dute **Pierre Drenan** eta **Frédéric de Lachèze** fundatzaileek, eta arreta izugarria jartzen dute gai batekin lotutako artistak edo ikuspegi artistiko bera partekatzen dutenak aukeratzeko unean. Obren arteko aldeek erabateko zentzua ematen diote egiten duten kritikari.

### 2.b. *Permanent Food*, prestazio handiko artxiboa

Artearen merkatuan ugari direnak ez dira OHEak (UFO), baizik eta OAEak (Objektu Argitaratu Ezezagunak). *Permanent Food* dugu horietako bat, **Maurizio Cattelan** artista italiarrak eta **Paola Manfrinek** bi urtean behin editatua; ostean, **Dominique Gonzalez-Foersteren** laguntza du 1995az geroztik. Berez argitalpen birtuala ez bada ere, ez du talde editorialik ez bulegorik, eta lanabes bikaina da ikusizkoaren arloko joerei azterketa egin ahal izateko. L'Association des Temps Libérések argitaratzen du, Les Presses du Réelek editatzen (Dijon, Frantzia), eta Idea Booksek (Amsterdam, Holanda) egiten du banaketa, Dijongo Kontsortzioarekin batera.

Zenbaki bakoitzak munduko beste argitalpen batzuetatik ateratako irudi aukera bat jasotzen du, eta prentsako ebakin gisa aurkezten. Zenbaki bakoitzean, hainbat testuinguru elkarren ondoan jarriz lortzen da irudien ikusizko indarra. Hautaketa epe luzeak lagundu egiten du, Paola Manfrinek dioen moduan, «nolabait, bizi garen une historikoa deskribatzen duen sekuentzia bat» sortzen. Batzuetan kritikari izaten ausartzen dira, eta, esate baterako **Mariuccia Casadioen** (*Vogue* Italiaren editorea) ideia batean oinarritutako zenbaki bat egin dute, *Vogue* aldizkariaren hainbat ediziotan bilduta horretarako materiala.

Irudi corpus honek ironia lantzen du eskuarki, eta iturri mistoetatik ateratako lengoaia gordina eraikitzen du, umore beltzeko, are dramatikoagoko, ukitu batzuk ere emanez horri. Metaketan oinarritutako logika berri bat, irakurketa parametro berriak sartzen dituen bat eta, funtsezko batasuna orrialde bikoitzean

datzan arren, diptikotzat har daitekeena bera. Baina *Permanent Food* erregela idatzi gabeek hain berdinak ez diren irudiak jartzen dituzte aurrez aurre; horietako bakoitza muturreko esangura edo erabilera eremuetatik dator, eta irakurlea nahastu egiten du, ezen kosta egiten zaio horiek lotzen dituen erlazioa aurkitzen eta, beraz, horien zentzua sekula ez da begi-bistakoa izaten. Ulerkuntza aurkitzeko, deskubritzeko dago beti. Baina misterio handi hori ez da beti izaten, eta horren zentzua eraikiten edo berreraikitzen amaitzen dugu, orrialde bikoitz batzuk pasatu ondoren. Paradoxikoki, abantailetakoa bat zera da, normalean irudi bat irakurtzen ematen dugun denbora zeharo laburra, kasu honetan, areagotu, luzatu egiten dela. Zenbaki bakoitza, nolabait, ikonografiako zulo beltz moduko batzuen gainean dago eraikita, eta zulo beltz horien barnean erlazio berriak sortzen dira, eta esangurak etenik mantentzen; hala, bere memoria sortzen dute.

### 3. *lacritique.org* (aldizkari atala) eta *Photos Nouvelles*, web eta paper artean

Interneten eta argitalpenaren artean oreka egoki eta zuzena mantentzearen, baina une honetan → [www.lacritique.org](http://www.lacritique.org) gure aldizkariaren online bertsio bat inprimatzeko behar besteko funtsik ez dugula, gure Erredakzio Komitearekin batera, dagoeneko editatutako aldizkariekin kolaboratzea erabaki dugu. Horretarako, *Area revue*(s)rekiko elkartruke bat egin dugu. Argitalpen horren zenbaki bakoitzak, tematikoak izaten dira, artikulua eta artista, erakusketa komisario, filosofo eta giza zientzien arloko izen handikoei egindako elkarrizketak izaten ditu. Azken zenbakia, esate baterako, «artearen balioei» buruz ari zen, eta bertan dago nik **Jean Kapérami** buruz idatzitako testua; Kapéram Errealista Berriak taldearen outsidersa izan zen, eta Frantzia lehenetakoa, gainera, komunikabideen estetika aintzat hartzen eta lantzen. Gure herrialdean aitzindarietakoa izan zen, halaber, bere *Million* serieko bertsio grafikoko marrazkiak produzitzeko ordenagailu bat erabiltzen. Guretzat aukera bat izan zen,

obra interesgarri eta orain historiko horietako testu eta ilustrazio sorta handi bat online eskaintzeko. Sorkuntzaren eremuan, askotan bakar-bakarrik berrikuntzetara jotzen dugu, eta hutsune historikoak sortzen ditugu azkenean; baina gure asmoa joera hori alderantztea da.

Ildo honetatik, *Photos Nouvelle*ekin (Ed. Atlantica) ere kolaboratzen dugu; bi hilean behin ateratzen den aldizkaria da, joera guztietako egungo argazkigintzan espezializatua. Horrek modua ematen digu irudi pila handia argitaratzeko, nahiz paper-zorro gisa eta hurrenkera tematikorik gabe antolatuta egon. Eta elkartruke horretan lagundu egin dute egungo inprimatze kostu handiek eta mantentzen ari den eskariak; izan ere, irakurleek gero eta gehiago jotzen duten arren sarera, batzuek nahiago dute, oraindik ere, liburua.

Hala eta guztiz, euskarri birtualean ere ikuspegi kalitate bera eskaini nahi dugu, eta horretarako kontzeptuak antolatu ditugu gure atalak, kontzeptu horiek lanabes teoriko espezifikoekin lotuta daudela.

- *Écart*s (Diferentziak) honek arauarekin eta estandararekin eta grezierazko «doxa» terminoarekin du zerikusia, eta edertasunaren eta gustuaren kontua planteatzen du.
- *Précipité* (Hauspeakina), kimikako termino honen bidez ilustratu egin nahi baita artisten eta bere inguruen arteko harremana.
- *Nécessité* (Beharra) autoreak bere forma estetikoak eguneroko praktikaren bidez aurkitzeko duen premia berresteko ahalegin bat da. Kandinskyren barne beharrera igortzen gaitu, baina zentzu zabalago batez; desirarekin zein erreazio eta zoriarekin du zerikusia.
- *Pretexte* (Aitzakia). Lana subjektutik bereiziriko objektutzat hartzen da, eta erlazioa komunitarismoarekin eta sortzaileen diskurtsoan oinarritutako konpromiso politikoarekin dago lotuta.
- *Tactique* (Taktika) gaur egungo artearen merkatua, karrera eta ekonomia hartzen ari diren jarrera aztertzen saiatzen da, materialak bezain garrantzitsuak baitira horiek.

- *Lacune* (Hutsunea). Artearen historia berriak agerian jartzen dituelarik artista edo korronte batzuen gainean dituen hutsuneak, horiek behin eta berriro ahazten dituela edo barnean daramatzen kontzeptu-akatsak, gure geure sistema zalantzan jartzeko uea iritsi da.

Sarrera hauek guztiek irudi eta obren beste irakurketa batzuk esperimintatzea ahalbidetzen digute.

#### 4. *Synesthésie*, online aldizkari batetik benetako Arte Birtualaren Zentro batera

Anne-Marie Moricek duela hamabost urte fundatu zuen Interneten sorkuntza-aldizkari hau. Horretarako, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatu zituen, artistei eremu esperimintal honetan espazio bat eskaintzearen eta, era berean, haiek, bere kritikez edo ikuspegi teorikoez, ekarpena egiteko aukera izatearren. Web orria hainbat ataletan dago antolatuta: «aldizkariak», «blogak», «zoom teorikoak», «gertakariak», «baliabideak», eta protagonista profesionalen estekak ere baditu.

Bere azken zenbakiko gaiaren esparruan, hiria eta honen garapen berriak baita gaia, *Synesthésiek*, urte amaieran, Art Grandeur Nature bienalarekin kolaboratu zuen, Seine-Saint-Denis departamentuan zehar espazio irekietan antolatutako erakusketetan. Bere instalazio, eskultura eta bestelako piezen bidez, artistek hainbat tokiren eta biztanleek horiez egiten duten erabileraren artean dagoen harremana planteatzen dute. Filosofo eta arte-kritikariak ere heldu izan diete kontu horiei, hiri espazio berrien eraketa dinamikoa aztertu dutenean «zona» kontzeptuari loturik. Aldizkariaren aurreko zenbakiek, newsletter baten bidez iragartzen zituzten, kapitulu teoriko bat behintzat bazuten beti. Paperean ere atera dute zenbaki bat, Departamentuko Kontseilu Nagusiak finantzatuta, eta horrenbestez modua izan dute testu teorikoak eta katalogo bat (*Grafisme*: Pierre di Sciallo Atelier, Le Comptoir des Indépendantsek banatua) jaso dituen liburu bat saltzeko.

Duela gutxiago, aldizkari hori zenbait feria eta ekitalditan izan da, esaterako La Force de l'Arten; hiru urtean behingo hau saiatu egiten da, halako arrakasta batez gainera, gaur egungo arte frantsesaren egoeraren berri ematen, eta kritika asko eta asko jaso ditu beti, obren aukeraketari dagokionez: oso emakume gutxi eta beti artista berberak, nahiz horietako batzuk, dena esan behar, oso-oso onak diren, zalantzarik gabe. Egin duen gauzarik onenetako bat *Synesthésie* kontuan hartzea izan da, ezen bide hori jorratuta aukera eman die benetan desberdinak diren proposamenei, esaterako Isabelle Grossek egin 3Dko *Upstream* bideoari edo *Serge Lhermitte*k duela gutxi egindako *Egoera urbanoetako gorputz eta gizarte jarrearen hiztegi laburra* lanari, besteak beste. Anne-Marie Moriceren lantaldeak egin duen bilduma birtualak aukera berria topatu du erakusketan, Grand Palaisen edo Interneten jendearen aurrean agertzeko.

Performancea, sarritan, azken hamarkadetan zehar *body art*ari eta orainaren premiatik sortzen den zuzeneko ikuskizunari lotuta egon da, koreografiatik oso-oso hurbil, historiatic aparte. Gorputz erreala, haragizkoa, ageri ez bada ere aldizkarietan, saiatu gara proiektu mota hau irudi-gorputz berriez osatzen, energia forma berriak sortzeko ahalegin batez, eta produkzio eta banaketa modu desberdinak harturik oinarri. Irakurketa berria eta estrategia desberdinak azken batean, gaur egungo arteak dagoeneko esperimintatuak.

→ [www.synesthesie.com](http://www.synesthesie.com)

→ [www.lacritique.org](http://www.lacritique.org)

→ [www.lespressesdureel.com](http://www.lespressesdureel.com)

→ [www.analogues.fr](http://www.analogues.fr)

→ [www.m19.fr](http://www.m19.fr)

→ [www.areaparis.com](http://www.areaparis.com)

→ [www.atlantica.fr/API/Photonouvelles.php](http://www.atlantica.fr/API/Photonouvelles.php)